

# ESKARIPEKO GELDIALDIAK DBUS-EKO B8 LINEAN

## Zertan datza proiektua?

Eskaripeko geldialdien sistema bat probatuko da Dbuseko **B8-Mirankontxa-Benta Berri-Apaizgaitegia** gautxori linean. Linea horren zati jakin batzuetan eskatu ahal izango da ibilbidearen geltoki ofizialen artean gelditzeko. Datorren **ostiralean, ekainaren 29an**, hasiko da zerbitzua.

## Zer zerbitzu egiten du B8 Lineak?

B8 lineak **ostiral, larunbat eta jaiegun bezperatan** ematen du zerbitzua, eta hiriaren mendebaldetik egiten du ibilbidea. Linearen ordutegiak:

ORDUTEGIAK / HORARIOS	
IRTEERA BOULEVARDetik / SALIDA BOULEVARD	
Ostiral eta jaiegun bezperatan / Viernes y vísperas de fiesta:	
00:30 - 01:30 - 02:30 (03:30 ekainaren 23tik abuztuaren 31ra / Del 23 de junio al 31 de agosto)	
Larunbatetan / Sábados:	
00:15 - 00:45 - 01:15 - 01:45 - 02:15 - 02:45 - 03:15 - 03:45	
IRTEERA AVANCOtik / SALIDA AVANCO	
Ostiral eta jaiegun bezperatan / Viernes y vísperas de fiesta:	
00:05 - 00:55 - 01:55 (02:55 ekainaren 23tik abuztuaren 31ra / Del 23 de junio al 31 de agosto)	
Larunbatetan / Sábados:	
00:40 - 01:10 - 01:40 - 02:10 - 02:40 - 03:10	



## Nork eskatu dezake eskaripeko geldialdia?

Eskaripeko geldialdia gidariari eskatu behar zaio berariaz, eta **emakumeek eta 18 urtetik beherakoek** egingo dute eskaera. **Jaisteko** baino ez dira izango geldialdiak. Geldialdi horietan ezin izango da autobusera igo.

## Nola eskatzen da eskaripeko geldialdia?

Erabiltzaileak berak jaitsi nahi duen lekua baino geltoki bat aurretik eskatu beharko dio gidariari, zuzenean. Gelditzeko eskaera egin duen erabiltzaileak **autobusaren aurreko aldera joan beharko da**, aurreko atetik jaitsi beharko baita.

## Ibilbidearen zer zatitan egin daiteke eskaera?

Eskaripeko jaitsiera zerbitzua **kale hauetan baino ezingo da eskatu:**

- Sanserreka
- Pio Baroja
- Pinuen pasealekua
- Heriz pasealekua
- Aizkorri
- Donostizarra
- Portuene
- Mikelete



## Zer baldintza bete behar ditu leku batek bertan eskaripeko geldialdia egin ahal izateko?

Funtsezko baldintza da **gutxienez 1,5 metroko zabalera duen espaloia egotea eta arrisku egoerarik ez sortaraztea**. Egoera hauetan, nagusiki, ez da jaisterik egongo:

- Ezingo da izkina, bidegurutze nahiz bidebanatze batetik bost metrora baino gutxiagora gelditu.
- Ezingo da oztopatu ibilgailuak pasabide lizentzia dutela behar bezala seinaleztatzen duten eraikinetara pasatzea, ez pertsonak eraikin batera sartu nahiz ateratze ohiko lekuak erabiltzea ere.
- Ezingo da geldialdirik egin seinaleak bete behar dituzten erabiltzaileei seinale horiek ikustea galarazten zaien tokietan, ez eta besteri maniobrak eginarazten zaienetan ere.
- Ezingo da geldialdirik egin irilatxo, erdibitzaile, sestran dauden pasaguneetan, bizikletazaleen pasaguneetan, oinezkoen pasaguneetan eta espaloia janda dagoen lekuetan.
- Ezingo da geldialdirik egin gelditzea debekatuta dagoela seinaleztatuta dagoen nahiz arauk hala ezartzen duten tokietan.

Halere, zalantzazko egoeretan gidariaren irizpideak edukiko du lehentasuna.

## Nola eskatu dezake eskaripeko geldialdia gurgildun aulkian bidaiatzen duen pertsona batek?

Arrapatatik autobusera igotzean, gurgildun aulkian doan bidaiariak (emakumeak edo 18 urte baino gutxiagokoak), non jaitsi nahi duen jakinaraziko dio gidariari. Gidariak erabiltzaileari jakinaraziko dio ea eskatutako lekuan baldintza egokiak dauden arrapala jaisteko eta baldintzak egokiak ez badira beste leku bat proposatuko dio jaisteko.